

ZRU  
3235



LEZOCO


PEREGRINACIODO

CANTAC

TOLOSAN

P. Gorrotxagaren Alargun eta  
Semea moldizteguian.

1900.<sup>en</sup> urtean.



CHRISTUS NOSTER VICTOR  
VICTOR IN DOMINA

M- 8791  
R- 36322

†

ATV

18.964

1900.<sup>co</sup> Urriaren 14.<sup>an</sup> San Franciscoren Irugarren Ordenac Lezora  
eguingo duan peregrinacioan  
cantatzeco zortzicoac.

### CANTATZALLEAI OARQUERA.

Iru musica modutan cantatuco dira jarraitzen duten zortzicoac. Asieretako zortzico luzecheagoac erri guziac buruz errezi casi ta cantatzeko musica eder bat dute.

Zortzico mochagoac dauzcate bi musica modu: bata, boz batean erriac canta dezaqueana: bestea, iru bozetaan cantatu bear dana. Musica daquiten batzuei emango zaizte paperac; eta peregrinacioan, nasteric izan eztedin, contuz auei casi ta jarraitu bear zaye cantuan.

†

### ECHETIC LEZORACOAN.

San Franciscoren seme alabac,  
Gueron banderac artuta,  
Batzuec trenez besteac oñez

*Goacen Lezora presaca;  
Guizaldi onec eman baño len  
Bere azquenengo asnasa,  
Jarri dezagun, ongui il dedin,  
Gurutzeari laztanca.*

1.

*Orden Irugarrengoa  
Anai ta arrebac,  
Naiz izan Bizcaitarrac  
Orobat Naparrac,  
Guipuzcotarraquin  
Gaur Lezora jaunac,  
Lezora gaur Lezora  
Lezora Euscaldunac.*

*San Franciscoren seme etc.*

2.

*San Franciscoren Orden  
Irugarrengoa,  
Banderac jasorican,  
Lezora dijoa,  
Benaz adoratzera  
Cristo Lezocoa,  
Franciscotarren Aita*

Chit biotzecoa.

*San Franciscoren seme etc.*

3.

Goacen bada Lezora,  
Goazen arin goazen,  
Agur ona eguitera  
Jesusi len bait len;  
Biotz eta besoac  
Dizquiigu zabaltzen,  
Laztandutzera bera  
Laiſter joan gaitecen.

4.

Biotz chit garbi eta  
Amoroso aquin  
Anchen bildu gaitean  
Danoc alcarrequin;  
Gucioc laztanduric  
Jesus onarequin  
Biurtzeco echera  
Bere graciaquin.



LEZON, GURUTZE SANTUAREN  
AURREAN CANTATZECO.

*Anai arrebac auspezturican  
Gurutze onen oñetan,  
Gure beguiac ondo bustiric  
Negar malco samiñetan;  
Barcaciaoa escatzen gatoz  
Umilqui eta benetan,  
Ceren ofensa eguin diogun  
Asco guizaldi onetan.*

1.

*Jarriric jotzeraño  
Lurra copetaquin  
Emen gauzcatzu Cristo  
Biotz umillaquin;  
Naparroa, Bizcaia  
Guipuzcoarequin  
Paqueac eguin nairic  
Gaurcoan zurequin.*

*Anai arrebac etc.*

2.

Emen ziñen aditu  
Millaca euscalduni:  
Guri aditu gabe,  
Gaurcoan ez utzi;  
Bada gatoz zugana,  
Fedean firmequi  
Infernutar danai  
Emanic arpegui.

*Anai arrebac etc.*

3.

Guizaldi au elduric  
Bere azquenera,  
Gatozquitzu bai Jesus  
Barca escatzera;  
Cergatic beguiratzen  
Badegu atzera,  
Gaiztoa izan dala  
Gatoz aitortzera.

*Anai arrebac etc.*

4.

Libertade gaiztoac  
Duala ichutu

Luciferren bandera  
Aguitz du jarraitu;  
Eta zurea berriz  
Dana porrocatu;  
Orregatican Jesus  
Gaurcoan barcatu.

*Anai arrebac etc.*

5.

Gurutze Lezocoa,  
Diogu benetan,  
Piztu zazu fedea  
Euscal biotzetan,  
Aguinduric bezela  
Bataio egunetan  
Nai degu jarraitza  
Zure banderetan.

*Anai arrebac etc.*

6.

Agur bada mundua  
Bere pomparequin,  
Agur baita araguia  
Lizunqueriaquin,  
Eta agur deabrua

Bere losenchaquin,  
Agur gaiztaqueriac  
Pecatu danaquin.

*Anai arrebac etc.*

7.

Betor Jauna Fedea,  
Betor birtutea,  
Iristeco etzaiac  
Oso garaitzea;  
Aita San Franciscori  
Zuzen jarraitza,  
Euquiaz banderatzat  
Zure gurutza.

*Anai arrebac etc.*

8.

Gurutze santuari  
Gure escaria  
Izango da, deseguin  
Dezala erejia:  
Aita Santua Errroman  
Libre icusia,  
Erlilio santua  
Danen nagusia.

—10—

*Anai arrebac etc.*

9.

Umildu ditezela  
Arroac lenena,  
Laztandu dezatela  
Biotz Jesusena:  
Ogueigarren guizaldi  
Orain datorrena  
Gucia izan bedi  
Jaungoicoarena.

*Anai arrebac etc.*

†

## GURUTZE SANTUARI AGURRA.

*Zure aurretic bagoaz Cristo  
Echera ;pena batequin!,  
Cergatic guc nai genduque egon  
;Beti ta beti Zurequin!  
Zure erruquia izan dedilla  
Gu eta eche coaquin,  
Orrela danoc goza dezagun  
;;Beti zeruan Zurequin!!*

1.

Agur Gurutze Santu,  
Agur chit laztana,  
Euskalen oneraco  
Lezora ciñana;  
Zugandic aldentzean  
Izan arren pena;  
Joan bearra daucagu.  
Agur bada Jauna.

*Zure aurretic etc.*

2.

Itza ematen dizugu  
Gaur zure oñetan,  
Zure alde izango  
Guerala guerretan,  
Zureac bear degu  
Guc izan benetan,  
Naita bicia bera  
Galdu ataquetan.

*Zure aurretic etc.*

3.

Ezautu ondorean  
Gurutze orretan,

Gugatic il ziñala  
Pena gogorretan;  
Maite bear zaitugu  
Itz eta obretan,  
Odolic degun arte  
Gueren biotzetan.

*Zure aurretic etc.*

4.

Aguertuco dizute  
Beti gure lanac,  
Guerala Franciscotar  
Cordoidun leialac,  
Guerala Catolico  
Cristau fededunac,  
Gorpuz eta animaz  
Beti euscaldunac.

*Zure aurretic etc.*



GURUTZE SANTUAREN AURRETIC  
JAIQUITZEAN, TA ECHERACOAN  
CANTATZECO.

*;Agurbada orain! agur eta agur!*

*;Cristo gurutziltzatua!  
Degu Zugandic aldendutzean  
Biotza chit ;samindua!  
Artutzean bai Zure laguntzaz  
Bidea echeracua,  
;Luza zuiguzu, bedeinca gaitzan  
Zure escu miraritsua!*

1.

**Atzera cobardeac,**  
**Bildurrac atzera,**  
**Aita San Franciscoren**  
**Banderac aurrera;**  
**Bere seme alabac**  
**Gu guzioc guera,**  
**Goazen infernuari**  
**Guerra ematera.**

*;Agur bada orain! etc.*

2.

**Euscal errian bada**  
**Oraindic fedea**  
**Ain ugari biltzeco**  
**Lezora gendea,**  
**Francisco tarrac guera**

Millaca taldea,  
Arzobispoa degu  
Bide eracuslea.

*;Agur bada orain! etc.*

3.

¡Oh cembait Anai gueran!  
Gaur Lezon urbildu,  
Gustora baita bertan  
Alcar ezagutu,  
Biotzetican danoc  
Gaitean amatu,  
Aita Franciscoc gaitzan  
Beti bedeincatu.

*;Agur bada orain! etc.*

4.

¡Oh ceñ egun gozoa  
Degun bai pasatu,  
Funzio chit ederrac  
Icusi ditugu,  
Lezo bišitatua  
Ez zagu damutu,  
Maiz onera etortzea

Ojala baguendu.

*;Agur bada orain! etc.*

4.

Baña bucatu zaigu  
Gure erromeria,  
Orain parti bearra  
Degu mingarria  
¡Agur! maite zaitugun  
Lezoco erria  
Agur or gueratzen da  
Danon pozcarria. . .

*;Agur bada orain! etc.*

5.

Jesus gurutzecoa  
Degu biotzetan  
Bera izan bedi beti  
Gure echeetan;  
Arquitzen gueranean  
Azquen asnasetan  
Berac sartu gaitzala  
Danoc Ceruetan.

AMEN.



VERA